

LEP 2021 ekaina

Hezkuntza Departamentuak azterketak euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik egingo direla, espezialitate guztietan aurkezteko aukera saihestuz sortzen diren arazoak direla eta (antolakuntza, ekonomia, ikastetxeen husketa...). STEILASek azpimarratu du, sakoneko arazoa dela, Nafarroan inoiz izan den araudi okerrenaren ondorioa da. Mahai Sektorialean berriz ere eskatu dugu: **zerrenda bakarra**, non izangai bakoitzak bere espezialitate eta profil guztiekin egin dezakeen lan (hizkuntzakoak eta bestelakoak) eta **oposizioak eta kontratazio zerrenda bereiztea**.

Bigarren Hezkuntza

PROGRAMAZIO AURKEZPENA

- Maiatzaren 29 eta 30ean, presentzialki, Nafarroa Arena pabilioian izanen da 7 txanda ezberdinetan.

AZTERKETAK

- Bi hizkuntzatan aurkezteko aukera izanen da. Gaztelarako espezialitateei dagokien azterketa larunbatarekin izanen da eta euskarazko espezialitateei dagokiena igandearekin. Ekainak 19 eta 20 izanen dira frogak, ziur aski.
- Frogak goizez izanen dira, egun berean: lehenengo atal teorikoa eta, ondoren, praktikoa.
- Azterketak NUPen eta Nafarroa Arenan burutuko dira.

PROGRAMAZIOAREN DEFENTSA

- Lehenengo froga gaindituta, uztailean zehar.

Hizkuntza Eskola

PROGRAMAZIO AURKEZPENA

- Ekainaren 19an, presentzialki, larunbatarekin eta arratsaldean.

AZTERKETA

- Lehenengo azterketa ekainak 26, larunbatarekin, izanen da ziur aski, nahiz eta oraindik ez dagoen baieztatuta.

PROGRAMAZIOAREN DEFENTSA

- Lehenengo froga gaindituta, uztailean zehar.

Bestelako zehaztasunak

- Prozesua gehienez ere abuztuaren 3an bukatuko da.
- Konfinatuta dagoen jendea (lehenik eta behin tribunal koordinatzaileekin kontaktuan jarri email bitartez eta mediku ziurtagiria bidalita):
 - Aurkezpenean konfinatuta bazaude: Programazioa lehenengo froga idatzian entregatu beharko da.
 - Idatzizko frogetan eta programazioaren defentsan konfinatuta bazaude: frogak atzeratuko dira gehienez ere prozesua bukatzen den eguna arte.
 - Atzeratutako azterketak egiteko antolakuntza aurrerago prestatuko dute.
- Ebaluazio irizpideak eta errubrikak publikatuko dituzte. Lehen bait lehen argitaratzea eskatu dugu.
- Araudia:
 - LOMLOE edo LOMCE aipatzeko askatasuna (ez da sarituko, ezta zigortuko ere).
 - Telehezkuntza aipatzea edo ez aipatzea posible izanen da (ez da sarituko, ezta zigortuko ere).

Informazio gehigarria

Honen inguruan ateratzen den informazio guztia [esteka honetan](#) argitaratuko du Hezkuntza Departamentuak.